

## Bilbon, 2012ko urriaren 18an

2012ko urriaren 18an, 16:30ean, euskaltzainburua eta Zuzendaritzako gainerako karguak hautatuak izan dira. Hautaketa-mahaia honela eratu da: buru, euskaltzain izendatu zaharrena izanik, Jean Haritschelhar jauna, eta idazkari, aldiz, Jean-Baptiste Coyos, berau azkenik sartutako euskaltzaina baita.

Hauek dira batzarrean izan diren euskaltzainak:

Sagrario Aleman  
Adolfo Arejita  
Aurelia Arkotxa  
Miren Azkarate  
Jean-Baptiste Coyos  
Jean-Louis Davant  
Patxi Goenaga  
Jean Haritschelhar  
Andres Iñigo  
Xabier Kintana  
Joseba Lakarra  
Jose Luis Lizundia  
Miren Lourdes Oñederra

Txomin Peillen  
Andoni Sagarna  
Patxi Salaberri  
Pello Salaburu  
Ibon Sarasola  
Ana Toledo  
Joan Mari Torrealdai  
Patxi Uribarren  
Andres Urrutia  
Xarles Videgain  
Mikel Zalbide

Egintzaren hasieran etorri ez diren euskaltzainen ahalak hartu dira kontuan. Jose Irazu «Bernardo Atxaga» jaunak Andres Urrutia jaunari eman dio ahala eta Patxi Zabaleta jaunak Andres Iñigo jaunari.

Hori ageriko egin ondoren, Jean Haritschelhar mahaiburuak hartu du hitza, estatutuen arabera eginkizunak izan beharreko nondik norakoak gogora ekarriz. Mahaiburuak kargu bakoitzerako dei bana egin du.

**Euskaltzainburua:**

Urtearen bukaerara arte euskaltzainburu den Andres Urrutiak eskatu du hitza. Bere burua aurkezten duela esan du, euskaltzainburuari dagozkion zereginetan jarraitzeko, eta hautatua izanez gero, hurrengo lau urteko epean Euskaltzaindian burutu nahi lituzkeen egitasmoak azaldu ditu laburzki.

Botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

**Boto-emaileak: 26**

Hautagaiaren alde: 18

Zuriak: 08

**Euskaltzainburuordea:**

Urtearen bukaerara arte euskaltzainburuorde den Aurelia Aurkotxa andereak bere burua ez duela aurkezten esan du eta Xarles Videgain jaunaren izena proposatu du. Horrek proposamena onartu du.

Bera bakarrik aurkeztu delarik botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

**Boto-emaileak: 26**

Hautagaiaren alde: 20

Zuriak: 06

**Idazkaria:**

Xabier Kintana jaunak bere burua aurkeztu du, Euskaltzaindiko zuzendaritza-taldean idazkariari dagozkion zereginetan jarraitzeko.

Bera bakarrik aurkeztu delarik, botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

**Boto-emaileak: 26**

Hautagaiaren alde: 17

Zuriak: 09

**Diruzaina:**

Sagrario Aleman andereak bere burua aurkeztu du Euskaltzaindiko zuzendaritza-taldean diruzainari dagozkion zereginetan aritzeko.

Bera bakarrik aurkeztu delarik botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

**Boto-emaileak: 26**

Hautagaiaren alde: 23

Zuriak: 03

**Iker sailburua:**

Andoni Sagarna jaunak zeregin horretarako bere burua ez duela berriz aurkezten eta Adolfo Arejita jaunaren izena proposatu du, Euskaltzaindiko zuzendaritza-taldean Iker sailburuaren zereginetan aritzeko. Horrek proposamena onartu du.

Bera bakarrik aurkeztu delarik, botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

**Boto-emaileak: 26**

Hautagaiaren alde: 23

Zuriak: 03

**Jagon sailburua:**

Andres Iñigo jaunak ere bere burua berriz ez duela aurkezten jakinarazi du, eta Jean-Baptiste Coyos jaunaren izena proposatu du, Euskaltzaindiko zuzendaritza-taldean Jagon sailburuaren zereginetan aritzeko. Horrek proposamena onartu du.

Bera bakarrik aurkeztu delarik botoetara jota, honako emaitzak izan dira:

**Boto-emaileak: 26**

Hautagaiaren alde: 24

Zuriak: 02

Beraz, Zuzendaritza honela eraturik gelditu da: Euskaltzainburu, Andres Urrutia. Euskaltzainburuorde, Xarles Videgain. Idazkari, Xabier Kintana. Diruzain, Sargario Aleman. Iker sailburu, Adolfo Arejita. Jagon sailburu, Jean-Baptiste Coyos.

Mahaiburua eta gainerako euskaltzainek hautatu berriei zorionak eman dizkiete.

Batzar berezia 17:25 direnean amaitu da.

Jean Haritschelhar,  
mahaiburua

Jean Baptiste Coyos,  
idazkaria

## Bilbon, 2012ko urriaren 18an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,  
Aleman, Sagrario,  
Arejita, Adolfo,  
Azkarate, Miren,  
Coyos, Jean-Baptiste,  
Davant, Jean Louis,  
Goenaga, Patxi,  
Haritschelhar, Jean,  
Lakarra, Joseba,  
Lizundia, Jose Luis,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Peillen, Txomin,  
Salaberri, Patxi,  
Salaburu, Pello,  
Sarasola, Ibon,  
Toledo, Ana,  
Uribarren, Patxi,  
Videgain, Xarles, eta  
Zalbide, Mikel euskaltzainak  
Erramun Osa, idazkariordea eta  
Joseba Zabaleta, kudeatzailea.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Jose Irazu «Bernardo Atxaga»k ahala A. Urrutiari; Jose Luis Lizundiak ahala Xarles Videgaini (18:30etik aurrera); Joan Mari Torrealdak ahala Andoni Sagarnari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori.

Batzarra arratsaldeko 5:30ean hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak hasiera eman dio ohiko batzarrari.

**1. Osoko bilkurako (2012/7/20) bileragiria onartzea, hala erabakiko balitz.** Hiru ohar jaso dira. P. Goenaga euskaltzainak oharren bat egin ahal den galdetu du. Ekarpenak egiteko epea euskaltzainek berek ezarri zutela erantzun zaio, eta beraz, iruzkinak finaturiko epean egin behar zirela, besteak beste, puntu horren ingurukoak batzarrean antolatzeko.

Azkenean, bilera-agiria onartu da epearen barruan aurkeztutako hiru iruzkinak txertatu ondoren.

## 2. Osoko bilkurako (2012-09-28) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Irailaren hogeita zortziko Osoko bilkurako bilera-agiria dela eta, P. Goenagak galdegin du aurreko bilkuraren bilera-agiria euskaltzainei zergatik ez zaien lehena-go bidali. Euskaltzainburuak erantzun dio, Idazkaritzan pilatu den lanagatik izan dela. Dena den, arautegiak ez du zehazki esaten aktak noiz bidali behar diren. Halere, J. Haritschelharrek orain arteko ohitura alde aurretik bidaltzea izan dela esan du eta, bere ustez komeniko litzatekeela aurrerantzean ere orain arteko usadioari atxikitzea.

J. L. Lizundia eta M. L. Oñederra ere bat etorri dira. Euskaltzainburuak eskari hori kontuan hartuko dela erantzun du.

2012ko irailaren 28ko bilera-agiria dela eta, oharrak abenduaren 3rako igortzea erabaki da.

## 2. Exonomastika

2.1. Exotoponimo-zerrendan egin beharreko azken aldaketak eta gehitzeak: **ekarpenak aztertu eta onartu, hala erabakiko balitz**. J. L. Lizundiak aurkeztu du, eta egindako txostenaren arabera helduriko oharrei erantzun die.

Joan zen batzarrean toponimiako azken aldaketa eta gehitzeez banatu zen proposamenari Mikel Zalbidek, J. Haritschelharrek eta P. Zabaletak *Benguelako itsaslasterraren* ordez *Bengelako itsaslasterra* arautzea proposatu dute. Era horretako toponimo euskaraz tradizio gabeetan, ez dela grafia aldatu erantzun zaie, *Languedoc*, *Périgieux*, *Guernesey* edo *Perdiguero mendia* kasuetan bezalaxe.

Bestetik, A. Urrutiak, Ondarroan *Rokal itsasgunea* euskaraz erabilia dela aipatu du. Exonimo hori ingelesa da eta **Rockall** izeneko uhartetik datorrela erantzun zaio, eta, dituen aldaketa txikiengatik hola uztea komeni dela.

Era berean, Tx. Peillenek **Grankanton** izeneko tokia kostaldea ote den galderari, argitasunak eman zaizkio. **Haizkibel** mendiko harearrizko haitz gunee bat da, haizeak eta euriek era bitxian zulatua.

J. Lakarrak, halaber *Kamtxatka* toponimoaren *m* letraren ordez *n* jartzea egokia goa ez ote litzatekeen galdetu du, aski toponimo handia baita. Orain Kamtxatkako itsaslasterra talasonimoa arautzea proposatu da, baina gogoratu da *Kamtxatka* (*Kamtxatkako penintsula*) 159. arauan jada 2010ean onartua zela, espainol, frantses,

ingeles eta aleman erduei jarraiki, guztietan m grafia erabiltzen da eta. Egia da urruneko toponimo batzuetan kontsonante-multzo arrotzak gertatzen direla, baina orain arte horiek errespetatzea erabaki da, Georgiako *Mtkvari* ibaia edo *Mtskheta* hiriaren kasuan bezala. Holako kasuetan eta, oharrak jaso eta horiekin txosten bat osatu da, euskaltzainen artean banatua.

Azalpenak entzun ondoren, Exonomastika batzordean eginiko proposamena bere horretan onartzea erabaki da.

**2.2. «Astronomia (I) Planeten eta planeta nanoen izenak» aurkeztea.** Proposamen hau banatzean, J. L. Lizundiak gogorarazi du jada Exonomastika batzordeak gure planetako kontinente, uharte, ozeano eta itsaso guztietako estatu eta herrialde nagusien leku garrantzitsuenen izenak aztertu eta Osoko batzarrera ekarri dituela. Era berean, orain arteko geografia-izen onartuen zerrenda ahalik eta lasterren argitaratu dadin, A. Mujikarekin batera lanean aritzeko duen asmoa iragarri du. Ondoren, Exonomastika batzordea berriztatzen denean, batzordean jarraitzeko asmorik ez duela ere gaineratu du. Horiek horrela, eskerrak eman dizkie urteetan batzordekide izan dituen guzti-guztiei. Inguruabar horretan, gutun bat ere irakurtzen hasi da, baina, amaitu gabe, azkenean batzarlekutik alde egin du, eskutitz hori X. Videgaini irakurtzen amaitzeko eskatuz. X. Videgainek holaxe egin du.

X. Kintanak, Osoko batzarrera exonomastika batzordetik ekarritako material berriak aurkeztu ditu. Badira oraindik aztertu beharreko beste arlo batzuk ere, baina gaurkoan arlo berezi bati ekingo zaio: Astronimiari, hau da, Lurretik kanpoko gorputz-izen propioen azterketari.

Mahairatzen den astronomia arloko lehen zerrenda hau, eguzkiaren inguruko planetei eta planeta nanoen izenei dagokie, eta horiek aukeratzeko erabili diren iturri eta irizpideak aipatu ditu: orain arteko euskal tradizioa, literaturan izandako lekukotasunak eta nazioarteko erabilera, hain zuzen ere. Izen horiek mitologia klasikoarekin eta beste toki batzuetako sineskerekin daukaten lotura ere gogorarazi du, eta hitz horiek transkribatzeko moduz ere mintzatu da.

Tx. Peillenek izen horietako batzuek, Martek kasu, espainolarekiko mendetasun handiegia erakusten dutela ohartarazi du, eta nazioarteko erduei gehiago jarraiki beharko litzaiekeela uste du. I. Sarasolak erantzun dio izen batzuk espainolkeriak direlako salaketa ez dela bidezkoa, Marte, adibidez, eta ez Mars, Iparraldeko seme zen Joanes Etxeberri Sarakoak berak zerabilen eta.

Astronimiari buruzko oharrak abenduaren 3rako igortzea erabaki da.

### 3. Euskaltzain urgazleak hautatzeko irizpideak, eztabaidari jarraipena eman eta irizpideak onartu, hala erabakiko balitz

Aurreko Osoko bilkuran Iruñean hasiriko gai honi berriro heldurik, euskaltzainburuak hitza P. Uribarreni eman dio. Beronek esan du P. Zabaletak aurreko bilkuran proposatutakoa oinarritzat hartu beharko litzatekeela, puntuak banan bana harturik.

P. Goenagak ez dakusa garbi irizpide-proposamenarekin zer egin behar den. J. Lakarrak, hautagaiak hautatzeko eraz, arauak bete daitezela eskatu du, ez baita besterik behar, beraren ustez. Hortaz, batzordeak ez luke bestelakorik aurkeztu behar. Hautagaien merezimenduak aipatu bai, baina proposatu, euskaltzainek egin behar litzukete. Konforme dago, bestalde, P. Zabaletaren proposamenarekin. Era berean hautagaiak, blokeka ez, baizik eta banaka hautatu behar direla pentsatzen du.

A. Urrutiak, esandako irizpideak laburbiltzeko, hau adierazi du: proposamenak egitean, batetik, batzordeetako kideak eduki beharko liratekeela kontuan eta, bigarrenik kultur arlokako beste zerrenda bat. Hortaz, abendu-urtariletan, batzordeetako buruei kontsulta egitea egokia litzatekeela pentsatzen du, hortik kopuru bat proposatzeko, eta beste kopuru bat kultur mundutik aterata, herrialde-eskualdeak ere kontuan izanda.

Kopuruari dagokionez, azkenean 25 bat lagun izenda litzatekeela esan du. Baina gogoratu ere egin du zenbat eta izendapenen kopurua handiago izan, emaitza, jendearen begien aurrean, are baliogabetuagorik agertuko litzatekeela. Agian irizpide mistoren bat beharko litzateke, batzordeburuei dei eginez, nork bere proposamenak egin ditzan.

I. Sarasolak ea une honetan Euskaltzaindiak zenbat urgazle dauzkan galdetu du. Erantzun zaionez, 119 dira.

Horrekin batera beste puntu bat ere plazaratu da, urgazle emerituena. Horretaz J. Haritschelharrek eta X. Kintanak hitz egin dute eta, kasu batzuetarako, beste euskaltzain-maila bat ez ote litzatekeen sortu behar galdetu dute.

A. Urrutiak nola jokatu beharko litzatekeen galdetu du, ondorioa kopuru orekatua izan dadin eta konparaketagatik elkarri irainik ez egiteko. J. Haritschelharrek esan du batzordeetara etorririko pertsona berriak ez liratekeela sartu behar. P. Salaburu, batzordeetako buruei lehen proposamena egiteko aukera ematearen alde dago, ondoren hautagaien kopurua kanpoko beste pertsona batzuekin osatzeko.

P. Salaberrik proposamenak egiteko jardueran batzordeburuen egitekoaz argitasunak eskatu ditu, norik zer egin behar duen argi uzteko. Prozedura moduan, eta batzordekideen artean gauzak zuhurtziaz egiteko, kontu hau soilik batzordeetako euskaltzain osoekin tratatzea proposatu da.

Ondorioz, hemendik abendura arte, batzorde guztietako arduradunekin hitz egitea erabaki da, urgazle izateko merezimenduak zeintzuk izan daitezkeen jakiteko, horrela datorren urtearen hasieran, horiek aukera egin eta deialdia egiteko. E. Osak galdetu du ea batzordeetako buruei, soilik, ala lantalde eta egitasmoetako buruei ere eskatu behar ote zaien proposamenak egitea.

Euskaltzainei gai honetaz hausnartzen segitzeko esan eta hurrengo Osoko bilkuran eztabaidarekin aurrera egitea erabaki da.

#### 4. Eskuarztekoak

**4.1. Josu Arenaza euskaltzainaren heriotzaz.** Josu Arenaza, Bizkaiko euskaltzain urgazlea, aurtengo irailaren 29an hil zela jakinarazi da. Euskaltzaindiaren ize-nean bere hileta-elizkizunetan X. Kintana izan zen. Zuzendaritzaren proposamenez (2012-10-16) haren hilberri-txostena, Euskaltzaindiko idazkariak egingo du.

**4.2. 2013. urteko egutegia aurkeztu.** Behin-behineko egutegia aurkeztu du idazkariordeak.

M. Zalbidek idazkariordeari eskerrak eman dizkio informazioagatik. Eta 2013. urteko XVIII. Jagon jardunaldiko gaia oraindik erabaki gabe dagoela jakitean, gogoeta eta proposamen batzuk egin ditu. Bere ustez, Sebero Altube ezin utzizko erreferentzia-gizona zen, baina eskuarki ez zaio merezi bezalako aitormenik egiten, eta hizkuntza-soziologian egin zuen lan bikaina gogoratu du, hots, *La vida del euskera* eta *Más sobre la vida del euskera*. Jagon jardunaldiak egitekotan, haren omenez lan monografikoa edo jardunaldiak egitea proposatu du. Horretarako, lekuri egokiena zein litzatekeen erabakitzean, euskaltzainburuak Bilbon, Gernikan edo Arrasaten egin litezkeela iradoki du. M. Azkaratek, aldiz, Gernika hobetsi beharko litzatekeela uste du, aurretik jada Arrasaten holakorik egin delako. Bestalde, gaiari dagokionez, M. Azkaratek, jardunaldiotan, batez ere hizkuntzaren soziologiari ekin beharko litzaikeela pentsatzen du.

A. Arejitak, jardunaldia S. Altuberen beste arloak jorratzeko baliatzea ere proposatu du. I. Sarasolak uste du egokiena M. Zalbideren bideari eustea dela, beste arloak oraingo utzita.



M. L. Oñederrak gogorarazi du aurten, urriaren 11n, Koldo Mitxelenaren heriotzaren 25. urteurrena izan dela. A. Arkotxak, efemerideaz baliatuz, K. Mitxelenaren oroitzapenez omenaldi bat egitea komeniko litzatekeela gaineratu du. Euskaltzainburuak oroitaraztea eskertu eta idatziz horri buruzko proposamenak eskatu ditu.

Euskaltzaindiaren egutegia dela eta, ekarpenak jasotzeko aldia ireki da, gaurtik abenduaren 3ra arte, abenduaren 14ko Osoko bilkuran, hala erabakiz gero, onartzeko.

#### 4. 3. - Ageriko bilkuretako bilera-agiriak onartzea

4.3.1. **Bilbon, 2012ko urtarrilaren 27an eginiko Ageriko bilkurako bilera-agiria (Hilberri-txostenak).** Ez da oharrik jaso eta, beraz, onartu egin da.

4.3.2. **Donostian, 2012ko otsailaren 24an eginiko Ageriko bilkurako bilera-agiria (Hitz-ordena, erabilera estrategikoa).** Honetan ere ez da oharrik jaso, eta beraz, ontzat eman da.

#### 4.4. Banaturiko liburuak.

Euskaltzainen artean ondoko liburuok banatu dira:

- a) *Euskaren Herri Hizkeren Atlasaren IV.a*. Liburu eta CD euskarrian.
- b) *Euskaltzaindiaren Hiztegia*
- c) *Narrazioak eta olerkiak, 2011*. R. M. Azkue sariketari dagozkionak.

#### 4.5. Hitzarmenak

##### 4.5.1. Baionako Udalarekin

Baionako Udalarekin lankidetzan jarduteko, 2012ko urriaren 23an, goizeko 11:00etan hitzarmen bat sinatuko du Euskaltzaindiak Baionako Udal Mediatekarekin. Ekitaldi berean E. Goyhenecheren *Onomastique du Nord du Pays Basque* liburuaren aurkezpena egingen du Xarles Videgain euskaltzainak. A. Arkotxak, ekitaldi horregatik, bere poza agertu du.

##### 4.5.2. Deustuko Unibertsitatearekiko

Era berean, Euskaltzaindiak beste hitzarmen bat sinatzeko asmoa du Bilbon Deustuko Unibertsitatearekin azaroaren hamahiruan.

#### 4.6. Hurrengo bilkurak

**4.6.1. Ohiz kanpoko Osoko bilkura.** Bihar goizean 10:00etatik 14:00etara, Euskaltzaindiaren egoitzan ohiz kanpoko Osoko bilkura egingo da, aztergai bakarrarekin: «2013ko zereginak zehazteko: aurrekontuak».

**4.6.2. XVII. Jagon Jardunaldiak.** Azaroaren 16an, ostirala, XVII. Jagon jardunaldiak egingen dira, Sustapen batzordearen eskutik, Baionan. Lekua: Université de Pau et des Pays de l'Adour.

**4.6.3. Eusebio Erkiagaren mendeurrena.** Bizkaiko euskaltzain oso izandako Eusebio Erkiagaren mendeurrena dela eta, Akademiaren Literatura Ikerketa batzordeak jardunaldi bat egingo du azaroaren 30ean Deustuko Unibertsitatean, 10:00etatik 14:00etara.

**4.6.4. Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren aurkezpena abenduaren hamai-kan, Baionan.** Lekua: Université de Pau et des Pays de l'Adour.

**4.6.5. Abenduko Osoko batzarra.** Euskaltzaindiaren hurrengo Osoko batzarra abenduaren 14an egingo da, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.

#### 5. Azken ordukoak

Hotelari eta afariari buruz zenbait argibide eman ditu idazkariordeak.

Eta besterik ez dela, bilera amaitutzat eman da, arratseko 19:30ean.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria